

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Zeintzuk dira behar ditugun hornitzaile eta bazkide nagusiak gure proiektua funtziona dezan?

Zer saldu behar genuen erabakitakoan, gure hornitzaile/bazkide nagusienak bilatzen hasi ginen. Honako hornitzaileak izango ditugu:

- Cartonajes Eibar: "Fotocall" bereziak, ezkonduen izenen inzialak, etab... sortzeko.
- Ikea: Dena apaintzeko behar ditugun materialak. Adibidez: led argiak, letrentzako bonbilak, etab..
- Moapics: Diseinu grafiko guztiak sortzeko.(Pegatinak, dendako txartelak...)
- Tentacion: Beharrezkoak diren karpak alokatzeko.
- Flower&co: Lorak erosteko.
- Bcnbutterfly farm: Tximeletak erosteko haztegia.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Gure enpresan bezeroen nahiak asetzea dugu helburu. Hori dela eta, hornitzaileak parte garrantzitsua dira enpresan funtzionamendu ona bermatu ahal izateko; izan ere, gure kontura zaila da produktu guztiak eduki ahal izatea eta eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak ematea. Horregatik, garrantzitsua da hornitzaileak guri lehengaiak erraztea, gero gu produktu edo zerbitzu bihurtzeko.